

HERRERA AUZOKO GARBI-TOKIA ETA GARBIKETARIAK

KORTAJARENA'tar Andoni

Gure gaztaroan, orain dala irurogei ta amar bat urte inguru, "komunio aundia" amaika urtekin egiten zanari buruzko prestaketak neskak eta mutillak alkarrekin egiten zituzten areto batean, naiz orduko oiturak kontuan izanik, neskak eta mutillak alde banatan kokatuz egin.

Kristau-ikasbideko ikasgaietan seme-alaben eziketari buruz gurasoek nola ezitu bear zituzten euren semeak galderari (gaztelaniatik zuzenean itzultitako "hijos'ek"),


"Kriatu ditzaten semeak zerurako" erantzunari, mutiko biurriek orrela jarraitzen zioten,

.- "Eta alabak putzurako". "Zertarako?". "Arropak garbitzeko, gobara egiteko", esanez bukatzen zuten esaldia.

Izan ere, orduko oituren arabera "komunio aundia" egin ezkerro jakifia izaten zan, batez ere erri txikietako giroan. Mutillak zango erdiraifinoko galtzak jantzi ondoren lan mota batzutarako eta neskak gona luzeagoak jantzita etxeko lanetarako, amari etxeko-lanetan laguntzeko eta geroago etxekoan arropak garbitzeko eta sendikoen bearrak ornitzeko. Orduan jaio ordurako erabakia gertatzen bai-zan gizaki bakoitzaren etorkizuna, neska ala mutilla izan. Gaurko egunean gauzak zearo aldatu diralarik, garbigailluak eta etxeko lanetarako geroztik sortu diran ainbeste tresna mota berriekin lanak arindu egin diranez, oraingo bizimoduan murgilduta etxetik kanpora zortzi orduko lanetan aritzen diran bikoteak, bearraren bearrak bearturik aurkitzen dira eta erreztasun aundiak dauzkate bien artean etxeko lanak egiteko, eurek nai duten erosotasunean bizi aal izateko eta ifior ez da arritzen, denbora auetan ez bai-dago bereizkuntzarik gizon-emakumeen artean eginkizun auetarako.

Asieran aipatu dugun ariari jarriatuz garai aietan arropa ariñak etxeko arrasketan garbitzen ziran eta lanerakoak, astunagoak, auzoetan eraikitako garbi-toki edo "labaderoetan". Toki auek aska aundi eta zabal batzuk izaten ziran inguru guziak arrizabalez ornituak zituztenak; arropak jaboitzeko, astintzeko eta zikiñak kentzeko orretarako garbiketari bakoitzentzat naiko lekua izaten zutelarik. Udarako obeak ziran leku aiek negu gorrian kanpo aldea izoztua zegoanean garbitzen aritzeko baiño!

Herrera auzoak ere ba-zuan garbi-toki eder bat, ain zuzen “txingurri” errekaen bazterrean, “Zubipe” edaritegia dagon inguruan, eta bidetik bertaratzeko zubitxo bat igaro bear zan. Erreka-
ren goiko aldetik odi edo tubo baten bidez ura arturik, aska aundira zuzenean sartu eta garbiket-
tak egin ondoren, ur-zikiñak beeko aldetik berriro errekaratuz.



Garbitzaileak erreka barruan garbitokia egin baino lehen.


Garbi-tokira astean bein edo bi aldiz, bereziki astelenetan, urbiltzen ziran herrertar andere-
ak buru gaiñean zeramaten kankarra edo barreñoa gaiñezka zutela, lanerako arropak eta etxe-
puska aundienak garbitzeko. Bestalde, leku ura billera-toki biurtzen zan eta ordu pare bat igarot-
zeko leku atsegiña, eta gobara astintzen ari ziran bitartean auzoko berriak ere ederki maxiatzen
zituzten; alako mutilla orrelako neskarekin egurazten ikusi zituztela eta maiteminduak ote zeu-
den; beste bikote bat, berriz, aserre aldiren baten menpean aurkitzen ote ziran, bada, bezperan,
igandean, mutilla bere adiskideekin ikusi zutela, eta, neskak etxetik atera gabe igaro zuala arra-

tsalde guzia, eta era ortako eta bestelako berriak ere, gizonezkoak sagardotegian naiz bizartegian bezala jakiten zituzten bezala. Agintariak ere ederki larrutzen zituzten, auzoko jaietan dantzaldiak gaueko amaikak arte bakarrik baimentzen zituztelako. Kantari ere saio ederrik egiten zituzten bi edo abots ederrekoak alkartzen ziranean eta baita, bein edo bein, aserre aldiren bat ere bera baiño gorago garbitzen ari zanak ura asko zikintzen zualako bere inguru guzian, baiña ez zan odola errekarra irizten, esaldi batek dioan bezala.

Beste garbiketa mota bat ere egiten zan erreka berean. Pasaia'ko kaiean kokatuak zeuden ainbeste ardo-almazenetan ardoa garbitzeko erabiltzen zituzten filtro-mangak, tela astunezkoak, garbi-tokiko urekin kutsatu gabeko uretan, goragotik artutako urekin, eta andik aurrera "txingurri" erreka ardo kolorekoa biurtzen zan Pasaia'ko portuko urekin naasten zan arte.

Eta jakiña, urak garbi-garbiak izan bear zuten eginkizun artarako, baiña udaldian, eskolumeak oporretan zeudenean, auzoko mutikoekin aserre aldiak izaten zituzten andre-mangazaleak esaten zitzaienak, ondoren ikusiko dugunez.

Garbi-tokia baiño gorago, garbi-tokirako urak tubo bidez jasotzeko ur-aska bat zegoan eta odian jaso ezin zana berriro errekaratzen zalarik, berez sortutako putzu-zulo bat aurkitzen zan, alde batera metro bi eta iru bestera zituana, eta mutikoak ara urbiltzen ziran eguraldi beroetan busti-aldi bat artzera eta an zebiltzala azpikaldeko loa mugitzen zutelarik urak zikindu egiten ziran eta ortatik gertatzen ziran manga-garbitzailleen aserrealdiak, lana ezin egin zutelako.



Herrerako ikuspegia garbitokia eraiki ondoren.

Garbiketari aietako bat "Maria-txiki" zan, (g.b.), txikia, baiño bizia eta su-ta-gar jartzen zan orrelakorik gertatzen zanean eta jakiñik nortzuk ziran ur-zikintzailleak aiengana urbiltzen zan, baiña mutikoek zelatari bat eukitzen zutelarik, eriosuarrean zetorrela ikusi orduko aal zuanak aal zuan bezala arropak eskuetan zituztela burni-bide aldera igotzen ziran aipatutakoaren ipurdikoak ez artzearren. Baiña, bein edo bein, uste gabean urbiltzen zitzaienean, arropak artzeko astirik gabe mundura etorri ziran bezala anka egin bear izaten zuten eta "Maria-txiki" k arropak jasorik, aal zuten bezala sasi tartean gordeta egon bear izaten zuten urak garbitu eta arek garbiketa lanak egin arteraño.

Garai aietan "txingurri" erreka urak gardenak eta kutsatu gabeak ziran, baiña gaurko egunean ezingo zuten orduan egiten ziran garbiketak egiterik aal izango, aipatutako erreka zero kutsatua egongo dalako.

Azkenik, garbi-tokiak bere garaian bere eginbearra bete zualarik, beraren bearrik ez dugun ontan lurreratua izan zan eta ainbat urteetan erritarren serbitzari izan ondoren, bere tokia aurrek jolasteko josta-leku biurtik aurkitzen da.

Reseña

Habría que remontar unos setenta años para situarnos en lo que era el Lavadero de Herrera y para comprender lo que sucedía con quienes allí acudían: las lavanderas. Las diferencias entre hombres y mujeres, como dice el propio autor, se marcaban desde temprano, desde el momento en que llegaba la Primera Comunión. A. Kortajarena nos muestra la importancia y función social de lo que era un lugar de encuentro, forzoso, en aquella época, a la par que refleja los cambios físicos que ha conocido el mismo.